


# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. PHOTO CARTE FUNTSA. RICARDO MARTIN.

## KALDEREROAK DONOSTIAN, 1926AN

Raimundo Sarriegiren musikaren doinuez, otsailaren lehen larunbatean kaldereroen konpartsak ateratzen dira Donostian. Historialari donostiar batzuen arabera, 1828ko inauterietako astelehenean Turkiako kaldereroen konpartsa bat atera zen sukaldeko tresnak joz. 1884ko otsailaren 2an, Kandelaria egunean, Hungariako Kaldereroen konpartsak lehen aldiz desfilatu zuen Donostiako kaleetan, La Union Artesana eta La Fraternal elkarteen eskutik. Artiku-luak erakusten duen irudia 1926ko otsailaren 14an egin zen. Inauterietako igande hura, prentsak ondorengo egunetan jaso zuen bezala, euritsu esnatu zen baina «...eguraldi txarra egin arren, Euskal Billera elkartearen 'kalderada' pintoreskoa atera egin zen... Karabana hiru gurdik osatzen zuten, zazpi zaldik eta dagozkien zaldizkoek, hartzek eta lauorgei kaldererok, musika banda batek jarraituta... Kaldereroen konpartsak izugarrizko arrakasta izan zuen... Konpartsak Donostiako kaleetan egindako desfilearen ondoren, bazkari bat egin zen elkartearen lokaletan. Ondoren, ohiko hitzaldien ondoren, tartean Ramon Zapirain Heraufset presidentearena; «...euskarazko poesia inspiratu bat irakurri zuen Felipe Casal jaunak».